

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

10/1/8 | 315

- ④ Juan Joxe Agirre, ohorezko aipamena
- ④ Parte hartze prozesua Amaratzen
- ④ Gozoaren atsegina
- ④ Desordutan taldeari elkarrizketa
- ④ Urtarrilak 24, Ero-Etxe elkartearen krosa
- ④ Agenda, horoskopoa, zerbitzuak...



Eskerrak Zuri

Aipamen Bereziak 2009

- ④ Asun Garikanori elkarrizketa



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
 Helbidea: Nafarroa etorbidea,
 6-behea.
 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 Telefonoa: 943 655 004
 Faxa: 943 654 983
 e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
 Webgunea: www.galtzaundi.com
 Koordinazioa: Leire Zubeldia.
 Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Gorka Otaegi,
 Amaia Goikoetxea Orbeagozo.

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igar-tua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Jone Gorostarzu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
 Banatzaileak: Olatz Garmendia
 Juankar Arregi
 Idazkaria: Edurne Mendia
 Maketazioa: Zigor Agirrezabala.
 Diseinua: Zigor Agirrezabala
 GOITIK
 Azala: Galtzaundi
 Inprimategia: Antza.
 Tirada: 5.000 ale
 Lege gordailua: 55-906/91
 Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSAKO
UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.



KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:

Eskerrak Zuri 2009, ibilbide osoen aipamena

Kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alorrean egindako lan isila aitortu eta publiko egiteko helburuarekin banatzen ditu Galtzaundi Euskara Taldeak Eskerrak Zuri Aipamen Bereziak.

8-15. orrialdeak

“Euskal Filologia ikasi zuen eta Gasteizeko IRALEn lan egiten du irakasleei itzulpengintza ikastaroak ematen. Berak irakurri nahiko lituzkeen liburuak itzultzen bide luzea egin du. 2007-8ko ikasturtean Renora joan ziren bere bi alabekin. Renoko University of Nevadako Basque Studies-eko artxiboetan arakaturuz, Ameriketako Estatu Batuetako Far West-ean, oraindik ere oso bizi da goen euskaldunen arrasto luzea topatu zuen”.

Elkarrizketa: Asun Garikano

16-18. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Virginia Etxarri eta Ibon Artola	4-5
	Normalizazioa: Bai Euskarari Sariak banatu dira lehen aldiz	6-7
	Eskualdeko albisteak: Amarotz auzoan parte hartze prozesua	12-13
	Koxk: Gozoaren atsegina	14-15
	Kultura: Eromena zor dizut... Desordutanen diskoa kalean	19
	Kirol saltsa: Ero-Etxe elkartearen krosa	22-23
	Agenda, horoskopoa, zerbitzuak, etab...	24-26



Virginia Etxarri
Ikaslea

4

Hau ez da iritzi artikulu bat. Testu hau Nestor, Maria, Anna eta Zhandra-ren laguntzaz idatzitakoa da. Beraiek nirekin batera hitzak ezarri dituzte, nik hemen deskribapen batetik haratago joan eta hitzei nire sentimendua gehitu diet. Gustu desberdinak izan arren, filma honek barnean asko ukitu gaituelako eta Tarr-en filmeek orokorrean zinema ulertu eta sentitzeko ikuspegia aldatu arazi digutelako erabaki dut hau idaztea. Baita, Bela Tarr bezalako zinema zuzendari batetaz soilik ongi hitzegi daitekeelako eta bere amaitezinak diren travelling-ak eta denbora bere egoera garbienean azaltzen duten pertsonaien gorputzek eta aurpegiak maitemindu nautelako ere. Eta, ezinezko izan arren, denek Armonías de Werckmeister filma irerkitzen duten lehen hamar minutuak ikustea gustatuko litzaidakeelako.

Mila esker Tarr.

Gizon mozkorrek beraien gorputza balantzaten dute poliki-poliki eta bat lurrera erortzen da. Guztiak János Valuska izeneko gazte baten zain daude, "zerbait" erakutsi behar dien gazte bat. János tabernara iristen da eta mozkor guztiak bere inguruan ezartzen dira. Valuskak gelaren erdian ipintzen du mozkoretako bat, justu sabaitik zintzilikatzen duen bonbilaren azpian eta Eguzkia dela esaten dio. Ondoren, beste bat hartu eta Lurra izango bailitzan bultzada xume batez Eguzkiaren inguruan biraka hasten da. Mozkorren bi gorputzek elkarrekin topo eginez ritmorik gabeko dantza bat proposatzen dute.

"Eta orain, guk geuk hilezkortasunaren inguruan ulertu dezakegun azalpen bat. Soilik nirekin infinituan barneratzea eskatzen dizuet, non egonkortasunak, lasaitasunak, bakeak eta hutsak inposatzen diren. Eta imagina ezazue infinitua eta soinua dun isiltasun honetan zeharkaezina den iluntasun bat dagoela. Hemen bakarrik mugimendu orokorra nabaritzen dugu, eta hasiera batetan, inguruan ditugun gertakariez ez gara oroitzen. Eguzkiaren argi distiritsuak beti isurtzen du argia eta beroa bere alderuntz zuzendua dagoen Lurraren alderdian. Eta hemen gaude, bere distiran". (János, Armonías de Werckmeister, Bela Tarr, 2000)

Tarr, **B**ela

Ilargia irteten da Lurraren inguruan bira egiteko. Gainontzeko ikusleak isilik begiratzen dute. Orain, mozkorren hiru gorputzek elkarri oztopo eginez biratzen dute eta Valuska bere azalpenarekin jarraitzen du. Valuska-k hiru mozkorrak gelditzen ditu: Eguzkia, Lurra eta Ilargia. Eguzkia makurtzen du eta Ilargia Lurraren aurrean da. "Eta bapatean airea hontza bilakatzen da, ¿sentitzen duzue? Zerua iluntzen dihoa, dagoeneko beltz da (...) Eta iluntasun gogor honetan, txoriak ere nahastuta daude. Eta ondoren... isiltasuna. Izaki bizidun guztiak gelditu daude. ¿Mendiak ihes egingo dute? ¿Zerua gure gainean erokiko da? Eta, ¿lurra gure azpian ireki? Ez dakigu eklipse batek gure gain hartu baitu." (János, Armonías de Werckmeister, Bela Tarr, 2000)

Valuskak Eguzkia altxa eta Ilargia eta Lurra berriz ere martxan jartzen ditu. Azkenik, dena normaltasunera itzultzen da. Iluntasunetik ihes egitea lortu dute. Tabernako gainontzeko mozkorrek Eguzkia, Lurra eta Ilargiaren inguruan goxo-goxo dantzatzen dute. Tabernariak alde egiteko esaten die guztiei. Mozkorrak dantzatzeari utzi eta lekutik irteten dira. János-ek oraindik bere azalpenarekin ez duela amaitu esaten dio tabernariari eta gau ilunera eramaten duen atea zeharkatzen du..

Mila esker berriz ere Tarr.

Krisiaren bukaera gertu al dago?

Kanpaina honen hasiera Alemanian eta Estatu frantziarren 2009ko bigarren hiruhilekoan emandako %0,3ko hazkuntza ekonomikoak, ekonomia japoniarraren antzeko hazkuntzak eta Txinako aktibitate ekonomikoaren hobekuntzak eragin zuten. Beste aldetik, langabezia iparamerikarraren gorakada historikoa %0,1 jaistea datu garrantzitsutzat erabili zen. Irakurri ondo, ez zen AEBtako langabeziaren gorakada geratu, odolustea %0,1 murriztu baizik!!

Datu hauek krisiaren amaieraren hasieratzat zabalduak izan ziren mundu osoan. Baina aldi berean, munduko ekonomia erorketa izugarria eta ekoizteko indarren suntsiketa masiboa baieztatzen zituzten datuak alboratuak izan ziren. Honek erakusten du kapitalistek beldur handia dietela krisia eragiten ari den ondorio politiko eta sozialei. Mundu osoko burgesia herritarrak konbentzitzen saiatzen da krisiaren bukaeraren ideiarekin, horrela konfiantza sortu nahi dute sakrifizio gehiago, gastu sozialen murrizketa gehiago, soldaten jaitsiera gehiago, enpleguan prekaritate gehiago... onartzeko. Sakrifizio guzti hauek gure eginez, iraganeko boom ekonomikora azkarrago itzuliko garela adierazten digute.

Manipulazio kanpaina honetan erabili ez diren hainbat datu larrik ordea hor jarraitzen dute. Hain zoragarritzat saldu ziguten bigarren hiruhilekoan, Euro-zonan %4,7ko atzeraldia

eman zen 2008 urtekoarekin konparatuta. Konparaketa eskala berbera hartuz, ekoizpen industrialak %18,6 jaitsi zen ahalmen industrialak %69,5ean jarriz eta langabezia %9,4ra iritsiz. Esan beharrik ez dago datu hauek okerrera egin dutela ondorengo hilabeteetan.

Krisiak garatzen jarraitzen du ordea eta klaseen arteko polarizazioa handitzen du, nahiz eta bere ondorio politikoak linealak ez izan. Garbi dago burgesiak bere errezeta duela krisitik ateratzeko: langile klasearen konkistak, soldadak eta lan baldintzak erasotzea eta gastu sozialak gutxiengora murriztea.

Krisiaren garai honetan langileen porrotak garaipenak baino gehiago izango dira eta fabrikaz fabrikako grebak gutxitu egingo dira hainbat herrialdetan. Baina honek ez du esan nahi langile klasea garaituta dagoenik edo bere kontzientzia atzerakoia denik. Ez, langileak krisiaren larritasuna bereganatzen ari dira eta beharrezko ondorioak ateratzen joango dira, eta ez dute dudarik izango borrokara ateratzeko, horretarako bideak aurkitzean, batez ere borroka bateratuetan, Euskal Herriko azken greba orokorrean ikusi genuen bezala.

Baina ez da nahikoa langileak borroka egiteko prest egotea. Langileek euren sindikatu, alderdi eta erakundeei begiratu die behin eta berriro zer egin behar ote den jakiteko, nolako erantzunak eman behar diren jakiteko, erasoan au-



Ibon Artola
Euskal Herria Sozialista-ko kidea

Krisia hasi zenetik bi urte inguru pasatzean, burgesiaren propaganda kanpaina ikusi dugu mezu bat lau haizetara zabaltzeko helburuarekin: "Okerrera pasa da eta ekonomia garrantzitsuenen errekuperatzea hasi da". Baina egia al da? Instituzio kapitalistek (FMI, Mundu Bankua, OCDE) aurkeztu izan dituzten aurreikuspenei begiratuta bestelakoa da egoera. Confebask patronalak berak ere onartu du errekuperazio ekonomikoa urruti dagoela eta gainera krisitik ateratzeko ez duela suposatuko aurreko garaietara itzultzea. Langabezia gora doan bitartean, kontsumo pribatua, ekoizpen industrialak, munduko komertzioa eta kapitalaren inbertsioa ikaragarri ari da erortzen. Orduan, zergatik horrenbeste euforia?

rran nolako borrokak antolatuta behar diren jakiteko... Hauen zain egongo dira borroka eraginkorretan parte hartzeko. Langileak mobilizatzearen edo borrokatzearen ardura nagusia beraz langileen erakundeetako arduradunek dute.

Euskal Herria Sozialista aldizkaritik lehen ere esan izan dugun bezala fabrikaz fabrikako borrokak ez dira nahikoa kaleratzeak eta enpresa itxierak saihesteko. Horregatik, beharrezkoa da sindikatu eta zuzendaritzek gatazkan dauden

fabriketako langileen borrokak elkartzea eta koordinatzea, langileen antolakuntza handitzea eta langileen kontzientzia maila igoetzea. Konbentzitu gaude, lan horretan marxismoaren ideiek oinarritzeko lana jokatu dutela. Krisi honen ondorio larriak denbora askorako izango ditugu, baina aldi berean, krisi hau eragiten duen sistema kapitalistarekin amaitzeko aukerak ere handitu egingo dira langileen eta gizarteko sektore zapalduen borroka garatzen doan heinean.

Bai Euskarari Sariak banatu dira lehen aldiz

Ziurtagiriaren Elkarateak lehen aldiz Bai Euskarari Sariak eman dizkie Euskal Herriko bi entitateri, haiek euskara enpresan txertatzeko aurrera eramandako ekintza bana sarituz. JEZ Sistemas Ferroviarios enpresa eta IMH – Makina Erremintaren Institutua izan dira Bai Euskarari Sarien lehen edizio honetako sarituak.

Kultur Agendaren bidez enpresa barnean eragin eta euskara erabiltzeko motibazioa sortu duelako; eta horrez gainera, bere ingurune hurbilean, hau da, Laudion, euskararen arloan erreferente bilakatzeko balio izan duelako eman dio Ziurtagiriaren Elkarateak Bai Euskarari Saria JEZ Sistemas Ferroviarios enpresari. Peli Ortiz de Zarate oso “pozik eta eskertuta” agertu da, eta azaldu du inguruan aitzindaria izateaz gain, euskal kulturarekin zer ikusia duten hainbat ekintza antolatu ohi dituztela JEZ-en: “Gainera, JEZ-eko langileek euskararen alde egiten duten lana eta orokorrean enpresak euskararekin duen konpromisoa ere azpimarratu behar dira”.

Beste Bai Euskarari Saria euskararen alde egindako ibilbide osoarengatik IMH – Makina Erremintaren Institutuari eman dio Ziurtagiriaren Elkarateak: erantzukizunaren ikuspegi etikotik abiatuta, zerbitzua euskaraz eskaintzeaz gain, lan-hizkuntza ere euskara izatea

lortzeko eman dituen aurrera-pausoengatik, hain zuzen ere. IMH-k aipatu dugun guztia erakundetu eta sistematizatu egin du gainera, Hizkuntzak Kudeatzeko Sistemaren bitartez eta inguruarekin proaktibo jokatzuz. Edurne Bilbao IMH -ko komunikazio arduradunak EHUrekin erabilera sustatzeko ikerketa proiektua eta merkatu azterketa martxan jarri dituztela aipatu du. “Euskarazko produktuak sustatzeko bezeroen segmentazio lana egin dugu, eta laugarren urtez 30+10 mintegia antolatu dugu: arlo sozio-ekonomikoaren hizkuntzaren kudeaketaren gaia urtero lantzen duen mintegi bakarra”.

Bai Euskarari Sariak aurkeztu eta banatzeaz gain, Ziurtagiriaren Elkarateak, Ofis ar brezhoneg elkarte bretainarrak, eta 7dquatre Herralde Katalanetako elkarateak indarrak metatu eta gaurtik aurrera elkarrekin lanean jarduteko hitzarmena sinatu dute tokian tokiko arlo sozio-ekonomikoan hizkuntza normalizatzeko. Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarateko zuzendariaren esanetan, gaurko mundu globalizatuan eta etengabe berritzen aritu beharreko garaian, inoiz baino garrantzitsuagoa da hizkuntza txikiek beren lekua izatea: “Horretarako gure esperientziak partekatzea eta jakintza trukaketa ezinbestekoa da. Hala,

garaietara egokituz, indartsu aurrera egiteko”.

Hitzarmena

Bretainako, Herralde Katalanetako eta Euskal Herriko alor ekonomikoan hizkuntza normalizatzeko elkarlanean aritzeko hitzarmena sinatu dute hiru herrialdeetako ordezkariak.

Ofis ar brezhoneg, hots, Bretoieraren Elkaratea, 1999 sortu zen arlo sozialean eta ekonomikoan eragiteko eta bretoiera garatzeko. Orduetik urrats esanguratsuak eman badituzte ere, Ofis ar brezhoneg elkarateko zuzendari Fulup Troversen esanetan, oraindik ere egoera delikatuana da bretoiera: “Bretainarrak horren kontziente dira kultura erakundeen ekintzei esker. Adibidez, eskola elebidunak hedatzen ari dira eta herri kolektibitateak hizkuntza politikak ezartzen hasiak dira egoera hau alda dadin”.

Dena den, Bretoiera ez da ofiziala eta UNESCOk galtzen ari diren hizkuntzen artean sailkatu du, orain arte eguneroko jardunean ez delako erabili: “Familiatako transmisioaren gelditzearen ondorioz, hiztun kopurua asko jaitsi da. XX. mendearen hasieran milioi bat pertsona inguruk hitz egiten zuten bretoiera”. Horregatik guztiagatik XX. mendearen hondarrean bretoiera indar-



tzeko lanean hasi ziren Ofis ar brezhoneg elkartean. Gaur egun, hainbat zerbitzu eskaintzen dituzte: bretoieraren behatokia; itzulpen eta aholku zerbitzuak; terminologia zentroa; hizkuntza ondarearen zentroa; eta garapen agentzia. Troversen esanetan, halere, aurrera eramandako ekimenik garrantzitsuena "Ya d'ar brezhoneg" ("Bai bretoierari") izan da. Bai Euskarari proiektuan oinarritu ziren horretarako: "Entitate askok izenpetu dute akordioa. Orain Ziurtagiri bat proposatzen dugu bretoieraren aldeko ekintzak neurtzeko eta baloratzeko".

7dquatre katalanaren erabilera sozialaren alde lanean ari den enpresa da. 2008an sortu zen 7dquatre eta helburu nagusi bat hartu zuen: eremu guztietan, baina batez ere sozio-ekonomikoan, katalanaren erabilera bultzatzea. Enpresa-

ren zu-

David Vila i Rosen hitzetan, lan munduan katalana txertatzeko ekimen gutxi zeuden eta horrexegatik hasi zen horretan: "Berebiziko garrantzia duen eremua da; izan ere, pertsonok ordu izugarri igarotzen ditugu lanean; eta bestetik uneoro gaude gizartean". Hori hala, gaur egun, hizkuntza planak egiten dituzte enpresetan katalanaren erabilera bultzatzeko, eta certifiCAT-en bidez, enpresa horien hizkuntzari dagokionez martxan jarritako praktika onak errekonozitzen dituzte. CertifiCAT-a, 7dquatre baino lehen sortua da, 2007. urtearen amaieran, hain zuzen ere: "Bai Euskarari Ziurta-

giran inspiratutako akreditazioa da, nahiz eta ondoren, katalanaren errealitate linguistikora moldatu genuen. Eta 7dquatre enpresa certifiCAT martxan jarri eta praktikara eramateko sortu zen".

Aipatutako guztia eren ondorioz eman dira Bai Euskarari Sariak. Baina, horrez gain, BAI ziurtagiridunen aldizkaria sortu du Ziurtagiriaren Elkarateak, eta ekitaldian aldizkaria aurkezteaz gain, bertaratu diren guztiei lehenengo ale bana eman zaie. Lehen ale honen ondotik, lau hilabetez behin argitaratuko da aldizkaria. Aldizkariak gain, Kirmen Uriberen Bilbao New York Bilbao liburua ere oparitu zaie Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateei. ©

Galtzaundi 35
10eko urtarrilak 8



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak

BUDARI KALEA 15-BEHEA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (BIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HONIDURAK

Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



Mertzeria eta
konponketak

Zumalakarregi etorbidea, 7
TOLOSA



Arostejeta kalea, 2 - Tolosa

ANTZA

Eskerrak Zuri 2009,

Ibilbide osoa

8

Kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alorrean egindako lan isila aitortu eta publiko egiteko helburuarekin banatzen ditu Galtzaundi Euskara Taldeak Eskerrak Zuri Aipamen Bereziak.


2009an, epaimahaiak erabakitako aipamenek, ez ekintza bat, ezta urte bat edo bitan egindako lana ere; kirola, kultura, gizatasuna eta euskararen alde egindako ibilbide osoak saritu ditu. Tolosaldeako Arraun Klubaren sustatzaileak, Mattin Labayen margolaria, Laringektomizatuen Toloasaldea-Goierriko elkarte eta Juan Joxe Agirre artxibozaina izan dira 2009ko aipatuak.

Abenduaren 18an, Tolosako Udaleko Pleno aretoan egin zen 2009ko Eskerrak Zuri Aipamen Berezien banaketa ekitaldia. Xumea izan zen: Protokolorik gabekoa, naturala, bertan aipatu ziren gizon eta emakumeek egindako lanaren gisakoa. 2009ko aipatuak, aurreko edizioetakoak, protagonisten senide eta lagunak, alderdi politikoetako zein elkarte ezberdinetako ordezkariak eta Galtzaundi Euskara Elkarteko Zuzendaritzako kideak bildu ziren ekitaldiaren goxotasunera. 20 minutu eskas iraun zituen sari banaketak. Hunkigarria izan zen benetan.

Ohorezkoa, Juan Joxe Agirri

Alegiako semea den Juan Joxe Agirre fraile benediktarrari eman dio Galtzaundi Euskara Taldeko zuzendaritzak aurten-go Eskerrak Zuri Ohorezko Aipamen Berezia. 1973. urtean,

Juan Joxe Agirrek Euskal Herriarekin zerikusia zuen argitalpen oro jasoko zuela erabaki zuen. Ordutik hona egindako bilketa eta sailkatze lanari esker, alegiar honek euskal gaiei buruzko funtsik garrantzitsuenetako bat osatu du. "Egun, ohikoak dira artxiboak. Han eta hemen daude. Tolosan bertan baditugu batzuk, eta nork ez du bere bizitzaren artxibo txikia osatu eta ganbaran gordetzen? Baina 70. hamarkadan, gizartea ez zegoen dokumentazioa gordetzeak duen garrantziaz jabetuta. Artxiboaren aldeko sensibilizazio horretan zerikusi handia izan du gaur omendu nahi dugun alegiarrak", azaldu zuen merituetan Joseba Antxustegietxarte Galtzaundiko zuzendaritzako kideak. "Gaur atzokoaz jakin nahi dugun eran, bihar gaurkoaz jakin nahi izango dute. Eta horretarako, Juan Joxek isilpean, zintzotasunez



en aipamena

Leire Zubeldia

eta muxtruk egindako lana ezinbestekoa da”, jarraitu zuen Antxustegietxartek.

Juan Joxek pozik eta hunkituta jaso zuen Galtzaundiren oroigarritxoak. Hitz batzuk ere esan zituen, argitalpenak gordetzeak duen garrantziaz jabetzeko: Azken urteetan Lazkaoko Monastegiko liburutegian 20 doktradutzako tesi baino gehiago egin direla aipatu zuen, eta bertako materiala gordetzeko, Aldundia eraikin berri bat egiten ari dela. Berak aipatuak luzeago irakurri ahal izango dituzue ondorengo lau orrietan Juan Joxe Agirrerri egindako elkarrizketan.

Kirola, arraunaren sustatzaileei

TAK oso ezaguna egin da; batetik bertako nesken taldeak, aurten 8 bandera lortu dituelako, eta Kontxako bandera irabazteko borrokan ikusi dugulako. Hori eta mutilen batelek ligan egindako lan ederra, San

Joanetako estropadetan sortze den giroa... Arrauna bizi-bizi dago Tolosan. Baina hau dena lortu ahal izateko, uretan, lehorrean eta bulegoetan lan-ordu asko pasa behar izan ditu lagun talde batek. Azken urteetan bezala, gaur egun ere antzera dihardute ontzia zuzen joan dadin lemazain lanak egiten, musutruk, eta zaletasun hutsagatik. TAKeko talde sustatzailearen izenean, Julaiin Gorostiagak jaso zuen Galtzaundiren oroigarritxoak Agustin Pagola iazko aipatuaren eskutik. Hunkituta, orain arte bezala aurrerantzean ere lanean jarraituko dutela ziurtatu zuen.

Kultura, Mattin Labayeni

Kultur arloan ere, ibilbide oso bat goraiatu nahi izan da aurtengo aipamen berezietan. Tolosarentzat ezaguna da Mattin Labayen, eta baita bere obra ere. Nork ez du ikusi inoiz

kalean, margotzeko materiala soinean hartuta, bere pintzel finaz paisaiak edertzen? Bere koadroen edertasunaz gain, bere sormenaz Tolosari eta Tolosaldeari egin dion ekarpena azpimarratu nahi izan zuen kultur arloko epaimahaiak.

Mattinek Bixente Gorostidi bertsolariaren eskutik jaso zuen oroigarria. Bixentek neguak udaberritzen jarraitzeko esan zion bertsotan. Mattinek bihotzez eskertu zuen keinua.

Gizatasuna, laringektomizatuen elkarteari

Ekitaldiko unerik hunkigarriena eskaini zuten laringektomizatuen Tolosaldea-Goierrri elkarteko kideek. Elkartea honetan, laringe minbiziari sendatzeko ahots kordak kendu dizkieten lagunak elkartzen dira. Bereaiek igarotako gaitz bera dutenen etxetara joaten dira, batetik laguntza psikologikoa

Xumea izan zen: Protokolorik gabekoa, naturala, bertan aipatu ziren gizon eta emakumeek egindako lanaren gisakoa

ematera. Gizatasunezko keinu hori eskertu nahi izan du aurtengoan Galtzaundik. Ignacio Sainz-ek jaso zuen oroigarria Mikel Errazkin iazko aipatuaren eskutik. Hunkituta ezin izan zuen hitz egin, baina bere begi bustietara begiratu besterik ez zegoen sentitzen zuen esker onaz jabetzeko.

Ekitaldia amaitzean mokatutxo bat janez elkarrekin solasean aritu ziren bertan bildutako lagun guztiak. Denek hartu zuten ahotan, Eskerrak Zuri Aipamen Berezien balioa: “Xumea baina polita da”.

Gipuzkoako Foru Aldundia eraikin berria egiten ari da Beneditarren artxiboak jarraipena izan dezan.

Juan Joxe Agirre

“Tokian tokiko historia egin nahi baduzu, azkeneko papertxoa ere ezinbestekoa da”

Leire Zubeldia

Bulegoan du Juan Joxe Agirrek (Alegia, 1930) Ohorezko Eskerrak Zuri Aipamen Bereziaren oroigarria. Beirategi batean jartzeko asmoa du jaso dituen gainontzeko sari guztiekin batera. Sariok, euskal kulturari egin dion ekarpenaren aitortza moduan hartzen ditu Juan Joxek. Bat ere bokaziorik gabe hartu zuen bibliotekako lana. Ardura horren aitzakian Bartzelonako Montserrat monastegira joan zen ikastera, eta han, aitzakia egi bihurtu zen. Liburu gosez itzuli zen Lazkaora eta proiektu bat buruan zuela: “Euskal Herriko biblioteka eta artxiborik onena sortu behar dut”. Esan eta egin. Francoren diktaduraren ondorioz itzalean geratutako milaka argitalpen berreskuratu dira bere ahaleginari esker. Harro erakutsi dizkigu biblioteka eta artxiboko apalategietan gordeta dituen altxorrak. Galtzaundi liluratuta atera da jakituria eta historiaren laberintotik.

Ohorezko Eskerrak Zuri Aipamen Berezia iaz jaso zenuen hirugarren saria izan zen. Nola hartzen dituzu zuk sari hauek?

Denei gustatzen zaigu horrelakoak hartzea. Egia esateko, ni inoiz ez naiz horrelakoen atzetik ibili, eta sorpresa handia izaten da niretzat. Kezka pixka batekin ere hartzen dut: Telefonoz esaten dizute beti: "aurten zu aukeratu zaitugu", eta niri behintzat hotz-hotzean harrapatzen naut; zer esan ez dakidala geratzen naiz. "Ilea hartzen ari zaizkit edo zer?" pentsatzen dut. Orain arte jaso ditudan domina guztien berria telefonoz eman didate. Zuek ere hala esan zenidaten, telefonoz. Lehenengo sariaren berria ez sinesteko modukoa izan zen. Baina hori karamelo goxoa da; horrek esan nahi du, zuk egin duzun lana ez dela alferrikakoa izan. Horregatik baietz esaten dut beti.

Juan Joxe, egiguzu zure biografia labur bat.


Nik alegiar bezala aurkezten dut nire burua. Gerra ondorengo belaunaldikoa naiz. Orduko giroa ezin da gaur egungoarekin alderatu. Orduan elizaren inguruan biltzen ginen. Familia guztietan, pozik handiena, batez ere amarentzat, senide bat apaiz edo fraile joatea izaten zen. Nik bi osaba nituen hemen, Lazkaon. Ni ere hona etorri nintzen. Hamairu urte nituen orduan. Garai haietan, kultura apaiz-etxetan eta komentuetan hartzen zen, beste mediorik ez baitzegoen. Sei urtez ikasi, nobiziatua egin, eta apaiztu egin nintzen. Ikasketen azken urtea Iparraldean egin nuen frantsesez.

Eta nola hartu zenuen bibliotekaren ardura?

Goierriin batxilergoa Beneditarrek ematen genuen; ni neu nintzen eskolako zuzendaria. 1969an, Beasainen institutua zabaldu zenean irakasle zeregina utzi egin genuen. Bat-batean, monastegiko fraile guztiak zereginik gabe geratu ginen. Zer egin behar genuen? Batzuek inprenta bat jarri zuten, besteek musika eskola... Komunitatean biltzen ginen erabakiak denon artean hartzeko. Eta bilera horietako batean esan zuten batek: "monastegi guztietan badute biblioteka, eta guk oso txikia dugu, eta bat ere antolatu gabe gainera". Nagusiak fraile askori galdetu zien: "zuk hartuko al duzu ardura hau" eta erantzuten zioten: "nik ez dut horretarako balio". Niregana ez zen iritsi, baina neronek esan nion: "begira, horretarako bokaziorik ez daukat, baina inork ez du lan hori hartu nahi eta sakrifikatzeko prest nago. Baldintza batekin: nonbaitera ikastera joatea". "Nahi duzun lekura joan zaitezke" erantzun zidan. Bartzelonara, Montserrat-era joatea erabaki nuen. Esango nuke, biblioteka pribatuetan munduko onena zela.

Han urtea pasa eta itzuli egin nintzen. Hemen, eraikin bat berri beharra zegoen biblioteka jartzekotan. Dena erreboluzionatu nuen, baina aurrera atera zen asmoa. Euskal Herriko biblioteka eta artxiborik onena egin behar nuela bururatu zitzaidan.

Franko garaian dena debekatuta zegoen; kultur gizonak alde egin zuten hemendik, eta eskerrak atzerrian kulturaren aldeko lana egiten jarraitu zuten. Pertsona horiei esker egin dezakegu herri honen 40 urteko historia. Argitalpen gehienak Hego Ameriketara ateratu ziren. Isilka, guk ere eskuz-esku pasatzen genuen materiala, Euzko Deya esaterako: "Leelo y pasalo a otro" jartzen zuten. Orduan ez zegoen oraingo ikuspeirik. Ez ginen jabetzen horiek denak biltzeko izango zuten garrantziaz. Bartzelonatik etortzean akordatu nintzen horiek denak bildu behar genituela. Ahal nuena biltzen hasi nintzen.





Nondik eta nola hasi zinen bilketa lana egiten?

Orduko alderdi politikoetako buruak seminariotik pasatukoak ziren. Hala nola: Xabier Arzallus, Garaikoetxea bera, Ardantza... ETAko gehienak ere "estudiantek" ziren. Frankismo garaian nor ez zen borrokalari? Denak ginen lagunak, eta denek goraiatzaren genuen mugimendu hura. Pertsona hauekin hartu-emanetan jarri nintzen. Garrantzitsuena hala ere, Ameriketara egin nuen bandoa izan zen. Banuen lagun bat hemen ikasitakoa, Caracaserara joaten zena han meza ematera. Hari esan nion zer egin nahi genuen. Ameriketara hemengo historiari buruz asko idatzi zela eta, hara joandako idazleen etxeetara joateko eta asmoaren berri emateko eskatu nion. Arrakasta ikaragarria izan nuen. Horrela osatu ditut hango argitalpen gehienak. Garrantzitsuenetakoa Tierra Vasca izango da. 20 urtetako

materiala oso-osorik bildu nuen. Horrela, baita Herria, Euzko Deya, eta Chilen, Buenos Aires-en zein Venezuelara publikatutako argitalpenak ere. Hori izan zen hasiera, eta gaur arte jarraitu dut.

Aldizkariak ez ezik, "panfletoak" ere bildu nituen. Frankoren garaia amaitu ostean, Alderdi Politiko bakoitzak bere publikazioak atera zituen. Milaka ditugu. Gero, jendeak ere jakin du material hori biltzen hasi ginela eta askok bidali egiten dute.

Jendeari esaten zenionean argitaratzen zuten argitalpen bakoitzeko ale bat hona bidaltzeko, konturatzen al ziren biharko egunean baliogarri izango zirela?

Ez. Inoiz ez, eta orain gutxira arte ere ez. Horren garrantziaz konturatzen dira hona etorri eta hemen dagoena ikusi eta gero. Ikerketa soziologiko bat egiteko adina material bada-

go, baina ez al litzateke polita izango, historiaren %70a izan beharrean %100 izango bagenu? Nahiago nuke hondare guzti hori hemen izango bage-nu! Ez niretzako; ni hemendik joango naiz eta hau hemen gertatuko da. Biharko ikertzaileek izan dezatela ahalik eta informazio osatuena! Tokian tokiko informazio guztia biltzen ez bada ezin da herriaren historia-rik egin. Alde bateko eta beste-ko argitalpenak, denak, bildu behar dira. Berdin dio eskubi edo ezkerria. Ideologia bakoitzak bere modura azaltzen du gertakari bat. Soilik ideologia bateko materialarekin ezin da doktoradutzaririk egin. Haudena errespetatu egin behar da. Tokian tokiko historia egin nahi baduzu, azkeneko papertxoak ere ezinbestekoa da. Horrekin antzematen duzu leku horretan zein giroan bizi ziren.

Zoritxarrez, material hori dena ez da %100ean bildu. Nik, bai irratiz, bai telebistaz eta bai

prentsaren bidez askotan esan dut hori. Baina euskaldunak zabaldu izan dira. Eskatzera joan eta askotan ez didate eman elizgizona naizelako. Baina gero bila etorri izan dira hona. Jende horri esan izan diot aurpegira: "Lehen zuri eskatzera joan nintzen, ez zenidan eman, eta orain zuk gorde ez duzulako hona bila etorri zara! Nondik eman behar dizut nik?".

%100 bilduta ez badago, artxi- bo honetan %-eko zenbat dagoela esango zenuke?

Zaila da esaten. Alderdi politikoei buruzko material pila dugu. Gainera, gero eta gehiago jasotzen ari gara. Hemen informazioa seguru dagoela eta, asko ari zaigu iristen. Altxorak lortu ditugu.

Guzti honek eman dizun lana neurtu al daiteke?

Ikusi gabe ez dago sinesterrik. Azken hiru urteetan laguntza izan dut, baina aurreko urte guztietan bakarrik aritu izan naiz. Oporrik ez dut ezagutzen, siestarik ez dut ezagutzen... Pozik etortzen naiz ordea. Beti dago lana. Milaka dokumentu ditugu, eta ez dira inoiz bukatuko baldin eta instituzioek laguntzen ez badute. Behin materiala informatizatuz gero lana asko murriztuko da. Baina hori egin baino lehen materiala ondo sailkatu behar da, ale bakoitzaren fitxa eginez. Hori egiten ez bada ezin da digitalizatu, nahastuta egongo litzateke eta dena. Horretan ari gara, baina medio gutxirekin. Biblioteka eta artxi- bo hau instituzio baten eskuetara pasako balitz, zuzendaria, idazkariak,

laguntzaileak... jarriko lituzke. Hemen ni bakarrik nago. laz eta aurten laguntzaileak izan ditut, eta eskerrak horiei.

Gipuzkoako Foru Aldundia ere jabetu da hemen gordeta duzuna altxorra dela. Eraikin berria egiten ari zarete?

Bai. Kanpoko egitura laster amaituko dute. Barrukaldea janztea, (apalategiak, gelak, bulegoak...) gerogorako utzi beharko da, ez baitago aurrekonturik. Ez dakigu noizko amaituko duten osorik. Luze joango dela iruditzen zait, dirurik ez baitago erakundeetan, eta horrelako egoeretan kultura izaten da kaltetuena. Hala ere ulertzen dut.

Eraikin berri hori izango da artxibo honen jarraipena. Bertan bilduko duzuen eta hemen bilduta dagoena, noren esku geratuko da biharko egunean?

Horretan ere pentsatu dugu. Nire ondorengoa izango den pertsona prestatzeko ahalegina egiten ari naiz. Bileratara eramaten dut nirekin hartu-emaneko jendea ezagutu dezan. Horrelako materiala ezin da edozein pertsonaren eskuetan utzi; jendearen konfidantza irabazi egin beharra dago. Lehiaketa publiko bat deitu eta edonork irabazi dezake. Eta jendeak edonoren esku utziko al luke horrenbesteko garrantzia duen informazioa? Horregatik ari naiz pertsona hori prestatzen. Oso pertsona jantzia da, lan honetarako gaitasunak dituena. Uste dut baldintza hori jartzeko moduan nagoela, orain arteko lan guztia nik egin baitut bakarrik.

Bisita asko jaso dituzu artxiboan. Gehienak onak, baina baita txarrak ere... 2005ean polizia etorri zen zure bila...

Hura izugarritzko sorpresa izan zen. Inoiz ez nuen imaginatu horrelakorik gertatu zitekeenik. Sarreran agertzeko deitu zidaten. Atarira gerturatu eta bi gizon zeuden nire zain. Batek heldu egin zidan, eta besteak poltsikotik plaka atera zuen. "Esta detenido y tenemos la orden del juez Garzón de llevarle a Madrid" esan zidan. Hotz-hotzean harrapatu ninduten eta izugarritzko kolpea hartu nuen. Inkomunikatu egin ninduten. Izugarritzko errejistroa izan zen. Goizeko 09:00etatik 16:00ak arte. Tartean esan zidaten: "Padre, esta usted sin comer", eta Guardi Zibilarekin sukaldaria joan nintzen. Ni jaten eta bera begira egon zitzaidan. Gero berriz interrogatorioa egin zidaten. Beldurgarria izan zen. Ez nekien bai edo ez esan. Juezak esan zidan, "si" edo "no" erantzun behar nuela. Baina "si" esaten baduzu ez da egia, eta "no" esaten baduzu ere, gezurra da. Azkenean bukatu zen dena, eta gelatik atera nintzenean, berriro atea ireki eta sumarioaren akta eskatu nion epaileari artxiboan gordetzeko. Ez dakizu nola jarri zitzaidan!

Hamarkadak daramatzazu hemen. Nekatuta edo lehenengo eguneko ilusio berberarekin jarraitzen duzu?


Lehenengo egunean baino ilusio gehiagorekin ari naiz orain. Orduan gauza gutxi nuen eta gehiago nahi nuen. Orain berriz, daukadana txukun jarri nahi dut ikertzaileentzat. Lan hori ez da sekula amaitzen.

Zu hasi zinenean ez zegoen artxibatzeak kulturarik. Gaur egun ba al dago sentsibilizatorik?

Bai. Geroztik erakunde indartsu batzuk hasi dira nirea bezalako lana egiten. Koldo Mitxelena Donostian, Labayru institutua Bizkaian eta Sancho el Savio Gasteizen. Iparraldean ere mugimendu garrantzitsua dago: euskal gaiei buruzko kartelak jasotzen ari dira Parisera eramateko. Niri ere eskatu dizkirate, baina hemendik ez da ezer aterako.

Langintza honetan hasi zinean bokaziorik ez zenuela esan duzu. Eta orain?

Nik ez nuen bibliotekario izateko bokaziorik. Nik beste karrera bat egin nahi nuen, hemendik atera haize freskoa hartzeko. Ez zidaten utzi. Orduan, bibliotekaren ardura

hartzeko aitzakiarekin Bartzelonara joan nintzen. Baina hara non, aitzakia hori egi bilakatu zen. Montserratetik erabat drogatuta etorri nintzen, liburu gosearekin. Gaur arte jarraitu dut, eta nik uste asmatu egin nuela. Material asko salbatu da gure ahaleginari esker. Eta horrek poz handia ematen dit. Batzuek galdetzen didate: Merezi al du horrenbeste lan egitea? Artxibo ugari pasa ondoren ikertzailea hona etortzen denean halako dokumentu ba ote dugun galdetuz, eta, "bai badugu" esateak ematen duen satisfakzioak ez du neurririk. Horrek ematen dit pozik handiena: euskal kulturari nire ekarpena egin diodala ikusteak. 





Urtarrilaren 23 eta 24an auzo kontsulta egingo dute Amarotzen

Nolako Amarotz nahi duzu b

Galdera horixe egingo die Amarotz Auzo Elkarteak auzotar guztiei. EHUko Parte Hartuz taldeak Amarotz auzora egokitutako parte hartze prozesu bat diseinatu du: urtarrilaren 23 eta 24an hainbat panel jarriko dituzte auzoan bertako bizilagunen ekarpenak jasotzeko, eta hilabete amaieran, jasotako ekarpen guztien inguruko jardunaldiak egingo dituzte. Azken honetatik, bizilagunek egindako etorkizuneko Amarotzen proposamena irtengo da. Udalak jarriko dio parte hartze prozesu honi azken hitza.

Erredakzioa

Amarotz auzoak garai erabakigarriak bizi ditu. Orain paper-fabrika dagoen lekuan 300 etxebizitza egin behar dituzte. Bizilagun kopuruaren gorakadak auzora aldaketa handiak ekarriko ditu, eta aldaketa horiek erabakiko dituztenak auzotarrak izatea nahi du Amarotz Auzo Elkarteak. "Sorrreratik argi izan dugu, Amarotz, auzotarrek nahi duten modukoa izan dadin saiatuko garela. Horregatik ekin diogu parte hartze prozesu honi. Helburua aurrepausoak amatea da, auzotar eta herritar bezala ukitzen gaituzten gaiei buruz iritzia eman, proposamenak egin eta azken batean, erabakitzeko. Amarotzen eraikiko diren 300 etxebizitza horiek jende gehiago ekarriko dute auzora, eta honi erantzuteko ezinbestekoa da zerbitzu eta azpiegiturei buruzko planteamendu berri bat egitea", azaldu zuen auzo elkar-teko kide batek ekimenaren aur-

Amarotzen eraikiko diren 300 etxebizitza horiek jende gehiago ekarriko dute auzora, eta honi erantzuteko ezinbestekoa da zerbitzu eta azpiegiturei buruzko planteamendu berri bat egitea

kezpen ekitaldian. Era honetan, osasuna, hezkuntza, trafikoa, kultur ekipamenduak, oinezkoentzako guneak, zerbitzuak eta beste hainbat gauzari buruzko iritzia ematea eskatu diete auzotarrei.

Hau ez da Amarotzen egingo duten lehenengo auzo kontsulta. Duela ez asko, auzo barruko trafikoari buruzko galdeketa egin zuten, emaitza gauzatu egin zelarik. Beste batean, dotazioei buruzko galdeketa egin zen etxex-etxe



Amarotz auzoko bizilagun ugari bildu zen parte hartze prozesuaren aurkezpenean.

bihar?

soziologo baten laguntzaz. Esperientzia aberasgarri horien ostean, hain galdera garrantzitsua den hau luzatu nahi diete auzotarrei. Aurkezpenean izan zen Tolosako Udaletxeko Partaidetza teknikariak Amarotzen egingo dutena "beste auzoentzako eredu bezala" balio dezakeela azpimarratu zuen, eta urtarrilaren 23 eta 24an euren ekarpena egitera animatu zituen amaroztarrak.

Urtarrilak 23 eta 24, parte hartze panelak kalean

Parte Hartuz taldeak hiru ardatzen inguruan diseinatu du Amarotz auzoko parte hartze prozesua. 1) Etorkezunean nolakoa nahi duzue izatea zuen auzo eta herria? 2) Zein da auzoan dauden zerbitzu eta azpiegiturei buruz duzuen iritzia? 3) Nola ikusten duzue parte hartzea tresna bezala?

Galdera hauei erantzuteko bi ekintzatan banatu dute prozesua. Urtarrilaren 23 eta 24an parte hartze panelak jarriko dituzte auzoan zehar. Panel horietan jasotako ekarpenak aldiz, urtarrila amaieran edo otsaila hasieran egingo diren jardunaldietan aurkeztu eta eztabaidatuko dituzte.

Urtarrileko asteburuan kalean jarriko dituzten paneletan (eguraldi txarra egiten bada auzo elkartearen egoitzan jarriko dira) auzoaren planoak agertuko dira. Auzotarrek falta diren zerbitzuei, edo zaharkiturik geratu direnei buruzko iritzia emango dute panel horretan, baina ez hori bakarrik; beharizan hori non dagoen



mapan kokatu beharko dute. Era honetako lau panel egongo dira: Lehenengoan, osasuna eta hezkuntza zerbitzuei buruzko beharizanak azalduko dituzte; bigarrenengan, trafikoa eta komunikazioarekin zerikusia dutenak; hirugarrenengan, hondakinei eta garbitasunari buruzkoak; eta azkenik, laugarrenengan, kirola eta aisiaren ingurukoak.

Zerbitzuei buruzko planoekin batera beste panel bat jarriko dute. Azken honetan, auzotarrek parte hartzeari buruzko euren iritzia eman beharko dute.

Ondorioak jardunaldietan

Parte Hartuz taldeko kideak Amarotzen egongo dira hilaren 23 eta 24ko asteburuan, kaleko jendea parte hartzera animatzeko. Asteburu horretan bildutako ekarpenekin txosten bat osatuko dute: "Auzotarren proposamenak bilduko ditugu. Proposamen bera askotan errepikatzen bada, txostenean islatuko dugu", azaldu zuen Parte Hartuz taldeko kideak. Txosten hau urtarrileko azken astean edo otsaileko lehenengoan egingo diren jardunaldietan aurkeztuko dute. "Lehenengo egunean egingo dugu txostenaren aurkezpena, eta bertan azalduko puntuei buruz eztabaidatzeko aukera egongo da. Bigarren egunean berriz, zer-

bitzu eta azpiegiturei buruz hitz egingo dugu. Saio honetara udaletxeko ordezkariak gonbidatuko ditugu zuen iritzi eta proposamenak ezagutu ditzaten". Jardunaldi hauek amaituta, auzotarren biharko Amarotzen proposamen bateratu bat izatea espero da. Proposamen horren berri izango du Udalak. Agintariena izango da azken hitza.

Auzo berriari buruzko informazioa

Parte Hartze prozesuaren aurkezpenean bizilagun asko elkartu ziren, ekimenak auzoan sortu duen interesaren ondorioz. Ikusentzule izan ziren pertsona askoren eskaria izan zen Amarotzeko paper fabrika dagoen lekuan egingo den auzo berriari buruzko informazioa ematea. Aurkezpenean egon zen udal teknikariak azaldu zuenez, bizigune berriaren proiektua ez dago erabat zehaztuta, soilik "etxebizitza kopurua eta beste datu minimo batzuk finkatu dituzte". Gaur, proiektuari buruz duten informazioa auzo elkartearen eskura jarri dutela azaldu zuen teknikariak. Informazio hori interesa duen bizilagun orok kontsultatu ahal izango du, hilaren 23 eta 24ko auzo kontsultan egin beharreko ekarpenetan kontuan izan dezan.

Galtzaundi 315
10eko urtarrilak 8

Beti Nahi
galtzaundi

Garaian garaiko janariak
eta arraikietan bereziak

Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

Beatriz
Dekorazioa
Donostia - Tolosa

- Gortinak
- Edredoi nordikoak
- Mantak
(bat erositako beste bat opari)
- Ohazalak
- Alfonbrak etab.

Donostia
San Martin, 16
943 425 886-943 420 187

Donostia
Garibai, 8
943 420 259-943 430 947

Tolosa
Rondilla, 11
943 670 615-943 671 149

Arteka

ESKULANAK

Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577

Literaturatik Far Westeko Euskal Herrira

Asun Garikano

Felix Aiestaran

Asun Garikano tolosarra, Bernardo Atxagarekin batera azaldu zen hitzordura. Bernardo, bi alabentzako txotxongiloetarako sarreren bila joan zen bitartean, literatura eta Far Westeko euskal-amerikarrez hitz egiteko aukera ederra izan genuen.

Euskal Filologia ikasi zuen eta Gasteizko IRALen lan egiten du irakasleei itzulpengintza ikastaroak ematen. Berak irakurri nahiko lituzkeen liburuak itzultzen bide luzea egin du ; besteak beste Carmen itzuli zuen. Azken aldi honetan Bernardo Atxagaren lanak gaztelaniara itzultzen ere eroso sentitu da. 2007-8ko ikasturtean senarrari emandako William Douglass bekari esker Renora joan ziren bere bi alabekin. Renoko University of Nevadako Basque Studies-eko artxiboetan arakatuz, Ameriketako Estatu Batuetako Far West-ean, oraindik ere oso bizi dagoen euskaldunen arrasto luze topatu zuen. Euskal Herria utzi, itsasoz bidaia egin, New Yorketik Far West-erako bidea urratu... urrats bakoitzerako protagonista desberdinez, amets amerikarrak zabaltzen zien epopeia beraren narrazio ederra osatu du *Far Westeko Euskal Herria* liburuan. Idatzitakoa dokumentu argigarriak diren argazkiez osatuta dago. Euskal artzainen topikoa gaindituta, euskal tipologia anitza aurkituko da bertan. Emakumearen lana, lurralde amaigabe eta

bakarti haietan aisialdi, lo, jan edo osasun zainketarako aterpe ziren saloon ostatuena islak edo Kalifornian Eskual Herriko izeneko euskara hutseko argitalpen ahaleginaren aipamenaz gozatzeko aukera aparta da Far Westeko Euskal Herria.

Itzulpengintzan ibilbide luzea egina zara...

Niri irakurtzea eta idaztea gustatu izan zait betidanik. Euskaraz irakurri nahi nituen liburuak euskaratzen hasi nintzen. Itzuli nuen lehen liburua Stevenson-en Uhartea Altxorra izan zen; zoragarria da. Ondoren, AEBetako Faulkner, Steinbeck eta abar itzuli nituen. Gustuko literatur lanak itzuli izan ditut beti eta hori zorte handia da. Ondo idatzitako liburuetako idazkera imitatuz itzultzen asko ikasten da. Itzulpengintzan, hasieran lanak euskaratu besterik ez nuen egiten, baina lehen burutik ere pasako ez zitzaizkiren arren, denboraren joanean euskaratik erdarara ere itzuli egin behar izan dut. *Soinujolearen semea, Markak, Zazpi Etxe Frantzia*... itzuli ditut gaztelaniara.



Zer moduz sentitu zara Bernardoren lanak gaztelaniara itzultzen?

Ezusteko handia izan da gaztelaniaren ezagutza zenbateraino-koa nuen jabetzea... Gure ikasketak COU arte, gaztelaniaz izan ziren eta input hori gure barruan dago. Euskaratzen erosoago sentitzen naiz, baina erdaratzen ere ongi aritu naiz. Euskaratik gaztelaniara itzultzen ez da ari horrenbeste jende, eta hori zaindu egin beharko genuke. Gaztelania beste hizkuntzetara itzultzeko zubi hizkuntza denez, oso ongi zaindu behar dira gaztelaniara itzultzen diren lanak.

Zer ematen dio euskal literaturari erdal lanak euskaratzeak? Eta zer euskal lanak erdaratzeak?

Steinbeck itzultzen dudanean irakurlearen gozamenerako da. Euskaraz dagoela konturatu gabe irakurtzen bada, ongi da. Euskaratzen den liburu bakoitzak euskara aberastu egiten du. Inoiz esan gabeko gauzak esateko hizkuntza behartu egiten dugunean, hizkuntzak malgutasunean irabazi egiten du. Bestetik euskaratik erdarara lanak zabaldu egin behar dira. Best seller sistematik kanpo Atxaga bertako idazleen artean salduenetako da. Harri bat uretara botatzen sortzen diren uhinen modura, euskarazko lana gaztelaniara itzultzean, badakizu frantses, ingeles, aleman batek... irakurriko duela; frantsesera itzultzean lana mundu arabiarrera zabalduko dela; edo Japoniara iristeko ingeleseko itzulpena ezinbestekoa dela jakin behar da.

Zein toki izan beharko lukete euskaraturiko lanek euskal literaturan?

Gurea bezalako eremu ttikiko literaturan, itzulitako lanek toki

handia izan behar dute. Poloniako literatur kritikari bati ea zein zen Poloniako libururik hobere- na galdetzean, honek Dostoiievski zela erantzun zuen. Guk ere hermeretzigarren mendeko literatur lan hobere- nak euskaratuta behar ditugu.

Nola bururatu zitzaizun Far Westeko Euskal Herria liburua idaztea?

Ez da Ameriketako euskal artzainen liburua. Egia esan, toki handia dute artzainek, baina besteak beste emakumeei buruz ere hitz egiten da. Emigrazioa gure gizarte- an garrantzitsua da, eta, AEBetan egonaldi luzea egin behar nuenez, Renon zehazki, Far Westera joandako euskal emigrazioaz lekukotasunak biltzen hasi nintzen. Liburuaren izenburua Kalifornian atera zuten Kaliforniako Eskual Herria asterokoaren oihartzuna da. Liburua, Kalifornian 1849an urrea topatzen dutenean hasten da. Euskaldunen lehen aipamenak ordukoak dira. Hemendik ondoren joandakoen lanbidea, abeltzaintza eta artzaintza izan zen. Artzaintzaz asko entzun dugu, eta ni ispilu zabalagoa jartzen saiatu naiz. Emakumeek bere tokia dute. Protagonismoa beraiei eman diet. Istorioak lehen pertsonan kontatuak dira.

Nongo artxiboan aritu zara arakatzen?

Joseba Zulaika buru den Renoko University of Nevada Basque Studies-eko artxiboan aritu naiz. Han ohitura handia dago norbere bizitza edo arbasoena idazteko. Ondoren, idatzi horiek

unibertsitatera bidaltzen dituzte gordetzeko.

Emakumeen aldetik zer aurkitu duzu?

Aurretik gai- az ezer ez nekienez ez nuen aurreiritzirik. Agirietan, Euskal Herri estu batetik bere gogoz joan ziren nortasun handiko emakumeak topatu ditut. XX. mende hasieran emakumeek hemen zituzten aukerak hutsaren hurrengoak ziren eta Ameriket- an aukera handiagoa ematen zien giro askoz askeagoa aurkitu zuten. Testigantza horietan ez dut irakurri hona itzuli nahi zuen emakumearen kasurik. Gizonezkoen artean jubilatutako ondoren itzultzeko asmoa nabi- riago agertzen da. Emakumeek ostatu- etan lan handia egin zu- ten.

Gustuko literatur lanak itzuli izan ditut beti eta hori zorte handia da.

Status-aren aldetik nolakoak ziren euskaldunak?

Joan zirenean denak behar- tsuak ziren, baina gaur egun denetik dago. Liburuan, Far Westeko euskaldunak hogeigarren mendeko 50. hamarkada arte aztertu ditut, eta bertan azaltzen dira sekula dirutza egin zutenak. Altubetarren arrantxoa izan zena AEBetako arrantxorik handiena da gaur egun. Pedro Altubek, hemengo base-





"Agirietan, Euskal Herri estu batetik bere gogoz joan ziren nor-tasun handiko emakumeak topatu ditut".

rritik aterata, hango San Frantzisko-koko villan zegoenean klasikoaren irakurlea kontratatuta zeukan.

Nola gorde dute euskalduntasuna?

Zailena hizkuntza gordetzea dute. Hemen euskal identitatearen elementurik funtsezkoenaren modura planteatzen dugu hizkuntza, baina hangoek ez dute horrela planteatzen. Lehen belaunaldiak hara joandakoan ingelesa ez jakitean gaizki pasa zuten eta bere seme-alabak bertako gizartean ongi integratzeko ingelesa ongi ikastea nahi izan zuten. Hiru edo laugarren belaunaldikoak hasi dira garrantzia ematen sustrai eta jatorriari. Udan etortzen dira euskara ikastera. Euskal komunitatea



indartsua izan den Jordan Valley moduko guneeetan badira laugarren belaunaldian ere euskarari bertan eutsi diotenak. Euskalduntasuna bizi nahi dutenek guk folklorikotzat jotzen ditugun erara bizi dute. Baina beraiek ez dute inondik ere folklorikotzat jotzen. Dantza eta kantua atxikitzeko errazagoa da. AEBetako edozein euskal bilgunera joanez gero denak kantuan eta dantzari arituko dira. Boiseko euskal dantza eskolan 300 lagun biltzen dira. AEBetan identitate bikoitza oso zabalduta dago. Marratxodun belaunaldiak deitzen zaie: italian-american, polish-american, basque-american... tartean dute marratxo horregatik. Gizarte horren heterogeneoan jatorriari eustea oso garrantzitsua da.

Far Westeko irudi jakin bat dugu buruan: saloon, cowboy... Zein toki zuten euskaldunek bertan?

Hollywoodek Far Westen irudi mugatua eman digu: bertan, heroiak cow-boyak dira. Horren ondoan, artzaina bere bakardadearen egonean azaltzea ez da izan horren zinematografikoa. Artzaina baten bizitza kontatuz gero denena kontatua zegoela esaten zidaten, baina *Far Westeko Euskal Herria* liburua iritzi hura ezeztatzeko frogatzen da. Istorio pertsonal bakoitza desberdina da. Far West eraiki zenean euskaldunak bertan ziren eta Far West hori euskaldunen ikuspegitik azaltzen da. Amerikako Ametsa betetzera joaten ziren, batzuk Idahoko eremu zabaletan bakarrik egotean sekulako shock-a hartzen zuten. Hemen edozein tontorrera igota etxe edo herriren bat ikus dezakezu baina han ez dago ezer.

Zer ziren ostatuak beraientzat?

Ostatuetan biltzen zirenean oso ondo pasatzen zuten. Emigrante guztiak bezalaxe bildu eta babesteko tokia behar zuten. Hasieratik, euskal ostatuak izugarriko garrantzia izan zuten. Euskaldunak Far Westera eramateko sarea egina zuten. Lan kontratuarekin joaten ziren. Valentino Agirrek New Yorken hartzen zituen, txartelak eta beste prestatu eta trenean uzten zituen, lau edo bost eguneko bidaia ondoren helmugara iristeko. Artzainak mendian bizi zirenez, beraien helbidea ostatua zen, bere gauzak bertan gordetzen zituzten, gaixotuz gero bertan zaindu, oporretan bertan bil-


 "Gu bezalako eremu ttikiko literaturan itzulitako lanek toki handia izan behar dute." 

tzen ziren... Euskaldunak egon diren Far Westeko toki guztietan egon dira euskal ostatuak. Bertan zerbitzatzen aritzen ziren neskek euskaldunak ziren eta beraiekin ezkontzen ziren euskal artzainak.

Cenarrusa, Laxalt politikagintzan indarra duten euskaldunak badira...

Cenarrusak hemengo zubiak irekitzeko lan handia egin zuen. Robert Laxaltek, politikaria izan gabe, euskal komunitateari gorputza eman zion. Euskaldunen perflari berak eman zion forma bere familiaren historia kontatuaz. Bere Sweet Promise Land eskola guztietan irakurri beharko litzateke.

Nola dago osatuta Far Westeko Euskal Herria?

Hango artxiboetan irakurri nituen kontakizunak, narrazio modura azaltzen dira. Bertako dokumentazio grafikoa ez da apaingarria. Testigantza desberdinak lotuaz, batek itsas bidaia, besteak New Yorkera nola iritsi zen, paperik gabeko baten kontakizuna, laugarrenak, New Yorketik Far Westera-ko tren bidaia kontatzen du... Euskaldunen irudia zabaltzen du liburuak. Emigratzen duenaren azaletik kontatzen dira istorioak. Mundu ezezagun batera abiatzeko kemena izan zuten beste era bateko euskaldunak azaltzen dira bertan. 



Amaia Etxetxipia
Nutrizio aholkularia

Urte berriaren hasieran, asmo eta intentzio onak izaten ditugu; horien artean, gabonetako gehiegikerien ondoren, gure elikadura berriro zaintzea, kilotxoren bat hartu badugu horiek jaitea, eta ariketa fisikoa berriro egiten hastea. Izan ere, janariarekin egiten ditugun gehiegikeriak izugarri antzematen ditugu, bai digestioari dagokionez eta bai gorputzaren pisuari dagokionez ere.

Koxk!

Gozoaren atsegina


Ospakizunak direla eta, ohikoa baino gehiago jaten da egun hauetan eta ondorioz, pisua igo egiten da. Oraindik ez du berorik egiten, eta behar bada, eguraldi txarraren ondorioz, udaberrian baino gehiago kostatzen zaigu zaintzea. Baina gehiengo batek ospakizun horien ondoren, digestio pisuagoak eta bihotzerreak ere izaten ditugu, eta sentazio horietaz baliatu gaitzake aurrera pausoa emateko, gorputza bera baita garbitu edo araztu beharra duela ohartarazten diguna. Kontutan eduki behar dugu, egun horietan, normalki baino azukre, koipe edo alkohol gehiago hartzen dela, eta noski, horrek, bere ondorioak ditu.

Eta, askok eta askok pensatuko duzuen bezala, nola kostatzen zaigun berriro elikadura ohitura onetara itzultzea! Baina ez da hain arraroa, izan ere, egoera honen aurrean badira gure organismoan zenbait erantzun fisiologiko. Elikagai

batzuk, (adibidez gozoak eta txokolata) tristura, larritasuna edo urduritasuna ordezkatzen dute lasaitasun edo zorientasun sentazio bat emanez. Elikagai hauek duten azukre kopuru altuak, gure gorputzeko serotoninaren ekoizpena handitzen dute. Serotonina, garuneko neurotransmisore bat da eta funtzio garrantzitsua betetzen du, adibidez, egoera hauetan: gure aldartea edo umorean, antsietate mailan, loaren kalitate eta kantitatean, minaren somaketan, eta elikadurarekiko jokaeran. Serotonina kantitate txikiagotan jariatzen denean edo bere kontzentrazioa jaisten denean, tristura, depresioa, uzkurdura edo buruko minak ere sentitzen dira, odol hodiak dilatatzen direlako. Hormona honek substantzi lasaigarri eta depresioaren aurkako bezela jokatzen duela deskribatu izan da. Bere kontzentrazioak gau aldean handitzen dira, logurea azaltzen delarik, eta kontzentrazio ho-

riek altu mantentzen dira egunsentia iritsi arte.

Eta zein atsegingarria den txokolata! Askorengan erakarpenez geldiezin bat sortzeko gai da entzutearekin bakarrik, eta kontrolik gabe jaten dutenak ere badira. Izan ere, txokolateak ezaugarri organoleptiko bereziak ditu, eta nutrizio-osaketa desberdina. Baditu ere zenbait konposatu farmakologiko, gure aldarrean eta umorean, eta gure borondatean eragina dutenak (adibidez, feniletilamina). Bere gantz-azidoak, ahoan desagiten dira gorputzeko tenperaturearekin eta honen ondorioz elikagai honek palatabilitate erakargarria lortzen du, pertsona askoren gustokoa izanik. Bere azukre kopuruaren ondorioz ere, serotonina bazu samar egotean sentitzen dugun tristura edo depresioaren aurrean, txokolate puska batek umorea hobetzen digu.



Dena dela, serotonina igotzeko irtenbide bakarra ezin du izan gozokiak kontrolik gabe jatea. Elikadurari dagokionez, aipatzekoa da triptofano aminoazidoa, serotoninaren eraketan aurrelari moduan parte hartzen baitu eta honako elikagaietan aurkitu dezakegu: lekaleak, fruitu lehorrak, esnea, arraina eta haragian. Ariketa fisikoa ere serotonina igotzeko lagungarria dela egiaztatu da, batez ere atari zabalean egiten denean. Barreak ere, eragin berdina omen du serotoninaren ekoizpenean.

Urte berri on!

Eromena zor dizut... Laukotearen aldarrikapena

Eromena zor dizut... Desordutan taldearen lehenengo diskoa da. Baina ez dira hasiberriak. Maketa kaleratu zuten 2007an eta 2008ko Kilometroak festaren kantuaren egileak dira. Ibilbide luzea duen talde gaztea da Desordutan. Esperientzia eta heldutasun hori nabaritu da diskoa aurkezteko eman dituzten kontzertuetan. Euren zuzenekoetan hain ohikoak diren haizezko instrumentuak baztertuta, laukote bezala aritu dira lokalean, eta hain zuzen ere, lokaleko soinua hori da diskoan islatu dutena. Desordutan biziago, rock-eroago itzuli da.

Leire Zubeldia

Azaroan diskoa aurkeztu zenuenetik hona lan berriari buruzko zein inpresio jaso duzue?

Txus: Hilabete hauetan, jendeak Desordutanen disko berria etxean eta zuzenean entzuteko aukera izan du, eta orokorrean jaso ditugun iritziak positiboak

izan dira. Zuzenekoari dagokionez, entzuleek oholtzan jarrera helduago bat, landuago bat lortu dugula antzeman dute. Diskoari dagokionez ere, taldean egin ditugun hausnarketa eta aldaketetaz konturatu dira. Lokaleko soinua bilatzen saiatu gara eta dirudienez jendeak sumatu du hori.

Aldaketa horiek era kontzientean egin dituzue edo naturalki etorri dira?

Txus: Bi eratakoa izan da. Maketa atera, kontzertu batzuk eman, Kilometroetako kantua egin... Azkenean, egin dako ibilbideak taldearengan bilakaera bat ematea suposatzen du, eta alde honetatik, aldaketa naturala izan dela esan daiteke. Baina era berean, prozesu kontziente bat ere izan dugu: Taldekide batek istripua izan zuen 2008an. Ondorioz, geldialditxo bat egin genuen. Tarte hau, lokalean sartu, lauak elkarrekin egon, kantu berriak egin eta taldeaz hausnarketa egiteko baliatu genuen, eta baita disko honetan lortu dugun lokaleko soinua bilatzeko ere. Inflexio puntu bat

izan zen, baina inongo presio eta presarik gabe egindakoa. Denbora hori hartu genuelako ekarri ditu disko honek aipatu ditugun aldaketak.

Eta laukotearen aldeko aldarri hori ere naturala izan da?

Egoitz: Guk era honetan funtzionatzen dugu: Taldekide batek lau akorde eramaten ditu lokalera, eta gero bakoitzak bere ekarpenak egiten dizkio. Haizezko instrumentuak konstatuta zazpi pertsona ginen. Denen ekarpenak jasotzea, zazpiak biltzea, lan handia zen.

Txus: Bestalde, diskoko kantu berriak egiten ari ginenean aldaketa bat bazela somatzen genuen. Kantuak rock-eroagoak ziren, biziagoak, eta haizezko instrumentuak ez genituen faltan botatzen. Kantua bere horretan gustatzen zitzaigun, eta horixe islatu nahi izan dugu diskoan.

Zuek ez dituzue haizezko instrumentuak faltan botata, baina jendeak faltan botako dituen beldurrik ba al duzue?

Egoitz: Hasieran agian horri

buruzko zalantzak izan genituen. Baina hau apustu bat izan da.

Txus: Hori da. Guk ez ditugu haizezko instrumentuak kendu sudur puntan jarri zaigulako. Apustu hau haratago doa: soinu berri baten bila gabiltza. Formato rock-ero hori bilatzeko saiakera izan da. Dena den, haizezko instrumentuak bi kantuetan sartu ditugu. Gustuko ditugu, eta agian biharko egunean kolaborazio gehiago egon daitezke.

Maketa kaleratu zenutenean aipatu zeniguten zuen estiloa bilatzen ari zinetela. Aurkitu duzue?

Egoitz: Gaur prentsan irakurri dut musikari baten esaldi hau: "Bizitza guztia eman dezaket nire soinuaren bila". Uste dut gure kasurako ere balio dezakeela.

Tx: Maketa entzuten dudanean bide baten bila genbiltzala nabaritzen dut nik ere. Gaur, bide hori bilatzen jarraitzen dugu oraindik, baina bidea estutzen doa, definituagoa daukagu. Bihar nondik nora joko dugun ez dakigu ordea.

Musika alde batera utziz eta hitzari buruz hitz egiten hasita, zer esan nahi izan duzue Eromena zor dizut diskoan?

Tx: Hitz jartzea azkena egiten dugun gauza da, baina horregatik ez da garrantziarik gutxien duen zeregina. Egia da, disko honetan doinu biziagoak daudela eta zenbaitetan letra arina sartu dugula. Baina esaten dugunari garrantzia

ematen diogu. Eguneroko kontuei buruz hitz egiten dugu diskoan. Sentimenei buruz hitz egiten dugu, gazteok ditugun desabantailei buruz...

Egoitz: Gainera disko honetan zenbait idazleren letrak sartu ditugu. Eromena zor dizut... kantua esaterako, Iñigo Aranbarriren Desordutakoak poemaren zati bat da. Poema berezia da, taldeari izena emateko garaian ere aurrean izan genuen. Gordeta dizkizudanak Jon Aldamizetxeberriaren letra bat da, oso gustuko duguna. Azkenik, Bizirik kantuaeren hitzak Eneko Aranbururenak dira. Enkarguz egin du letra hori, Txusen anaia baita. Iñigok istripua izan eta gero, "carpe diem" moduko aldarrikapen bat egin nahi izan dugu eta kantu hau horretara dator.

Zer lortu nahi du Desordutan -ek disko honekin?

Txus: Guk uste dugu, disko honek agian orain arte itxita izan ditugun ate batzuk irekitzeko aukera emango digula, batez ere zuzenekoie dagokienean. Gainontzean, helburua gure musika hedatzen jarraitzea izango litzateke. Tolosan bada, ondo, baina gustatuko litzazuke herritik kanpo ere zabaltzea.

Zeintzuk dira ba orain arte itxita izan dituzuen ateak?

Txus: Hori esaten dugunean zuzenekoie buruz ari gara. Gaztetxeen zirkuituan jo dugu gehien bat: Alegin, Anoetan, Bizkaiko Zaldibar herriko gaz-




tetxean ere izan ginen... Tabernetan ere jo izan dugu. Areto txiki hauetan oso gustura mugitzen gara. Handiagoetan ere jo dugu. Durangoko Plateruenean eskaini genuen zuzenekoia. Agian era honetako areto edo plaza handiagoak izan ditugu itxita, baina ez itxi egin dizkigutela, irekitzera iritsi ez garelako baizik. Ez nuke esango gure helburua ate horiek irekitzea denik, gure musika zabaltzen joatea da kontua.

Zuzeneko biziago eta landuago batzuk ematen saiatu zaretela diozue... Saiakera berezia egin duzue?

Txus: Bai. Egia esan dexte landu dugu, horretarako denbora izan baitugu. Gure eta ikusentzulearen artean konexio bat sortzen saiatu gara. Jendearengana iristea zaila da, baina emandako azkeneko zuzenekoetan nabaritu dugu konexio hori, eta jendeak ere sentsazio bera helarazi digu.

Hurrengo egunetan non ikusi dugu Desordutan?

Txus: Abenduan kontzertu dexte eman ditugu eta aurrerantzean ere beste batzuk emateko moduan izango gara. Oraindik erabat lotzea geratzen zaizkigun arren, urtarrilean Nafarroan ibiliko gara, Tafalla eta Lakuntzan zehazki. 

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK

Korreo, 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa


GORRI

Paper manipulaziorako makina eraikuntza

Konponketa eta mantenimenduak

Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916


ARTE TAILERRA

HAURRAK ETA HELDUAK

Sormen lana: marrazketa, margoak, eskultura.

Tolosa-kale Nagusia, 16 - Telf. 677 340 685

ZABALA DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04



BEOTIBAR INDUSTRIALDEA, 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

Urtarrilaren 24an izango da Ero-Etxe elkartearen XXIII. krosa

Parte hartzea saritzen d

Tolosa eta Tolosaldeko gaztetxoan artean klasikoa bilakatu da Ero-Etxe Elkartearen krosa. Aurtengoan, XXIII. aldia ospatuko dute. Tradizioarekin batera, kros honek badu beste ezaugarri garrantzitsu bat: inork ez duela galtzen. Helmugara iristen den orok jasotzen du saria, Ero-Etxe elkarteontzat parte hartzea baita garrantzitsuena. Kirol proba eta festa, biak bateratuko dira urtarrilaren 24an.

Erredakzioa

Egun 31 urte dituzten gazteak, haur zirenean Ero-Etxe elkartearen krosean atera ziren. 1979. urtean jaio ziren haurrak izan ziren duela 23 urte ospatu zen lehenengo aldian parte hartu zutenak. Aurten, 2000. urtean jaiotako hurrek lehenengo aldiz parte hartzeko aukera izango dute. Tarteko belaunaldi guztietako haurren etxetan Ero-Etxe elkartearen kroseko oroigarriak dituzte. Izan ere, lasterketa honetan parte hartzea da garrantzitsuena. "Nahiz eta azkena izan, helmugara iristen diren guztiak saria jasotzen dute. Lehenengoek txapela eta trofeoa eskuratzen dituzte noski, baina lasterketa honetan parte hartzaile guztiak dira protagonistak. Gainera, konturatu gara gazte askok maitasun handiz gordetzen dutela Ero-Etxe krosean

lortutako saria euren kirol garaikur bakarra baita", azaldu dute antolatzaileek "eta horrek poz bikoitza eragiten digu", jarraitu dute.

Hasiera-hasieratik arrakastatsua

Duela 23 urte egin zen lehenengo krosetik arrakasta handia izan du Ero-Etxe elkartearen ekimenak. Herriari zerbait eskeini nahi ziola eta, ideiak makinatzen hasi zen Ero-Etxe elkarteak. "Ikusten genuen haurrentzat oso gauza gutxi zegoela. Haurrentzako kirol proba bat izan zitekeela pentsatu genuen. Sasoi honetan krosak izaten direnez, guk ere krosa antolatzea erabaki genuen azkenean". Tolosaldean kros gutxi egiten ziren orduan. Antolatzaileek San Esteban krosa aipatu dute indarra hartu duen kirol-proba bezala. "Baina guk zerbait ezberdina egin nahi genuen.

22



HELMUGA

Galtzaundi 315
10eko urtarrilak 8

uen krosa

Txikientzako lasterketa bat antolatzeaz gain, festa bat sortzea zen asmoa". Asmoa gauzatu dutela argi dago. Ero-Etxe krosaren aitzakian, jende mordo biltzen da Tolosan, "eta denak irribarre batekin joaten dira etxera, denei ematen baitzaie saria".

Parte hartzaileen kopurua beretxua izan da 23 urte hauetan. 700 haur inguru irteten dira irteera marrik. "Azken urteetan agian zertxobait igo da lasterkari kopurua, baina aurrerantzean ez da askoz gehiago igoko, Tolosaldean zentratzen baikara". Neurria hartu diote krosaren antolatetari, eta kopurua igotzeak antolaketa zailduko luke. Krosaren egunean Ero-Etxe elkarteko bazkide gehienak egoten dira lanean, baita Tolosako beste elkarteetako zenbait lagun ere. Aurretik egin beharreko lanak ere badira: Krosa finantzatzeko publizitatea lortzea adibidez. "Publizitatetik bizi da krosa, eta horregatik eskertu egin nahi diegu laguntza ematen diguten guztiei".

Zirkuitua motza da, helburua parte hartzaile guztiak helmugara iristea baita.

Zirkuitua Alde Zaharreen

Ero-Etxe elkartearen krosa San Frantzisko ibilbidearen inguruetan egin izan da. Iaz, kolektorearen lana tarteko, krosaren ibilbidea Alde Zaharrera mugitu behar izan zuten. Aurtengoan ere ibilbide bera mantenduko dute. "Zirkuitua motza da, helburua parte hartzaile guztiak helmugara iristea baita. Beraz, ez korrika ibiltzen direnek soilik, denek parte hartu dezakete lasterketa honetan". Zerkausia izango da irteera eta helmuga puntua. Ibilbide luzea Rondilla kalea zeharkatu eta Gorriti plazatik barrena Kale Nagusitik itzuliko da Solana kalera. Ibilbide motza Korreo kaletik igaroko da.

Infantil mailako mutilak 11:30ean irtengo dira. Hauek 2.950 metro egin beharko




dituzte (itzuli motz bat eta hiru luze). 15 minutu beranduago maila bereko neskek 2.150 metro egingo dituzte (bi itzuli motz eta luze bat). Hamabost minutuko tartearekin aterako dira hurrengo taldeak ere. Alebin mailako mutilak lehenik eta neskek ondoren, biek 1.400 metro egin beharko dituzte (bi itzuli motz). Txikienak, benjaminak 700 metro osatu beharko dituzte (itzuli motz bat).

Izen-ematea ikastetxeen bitartez egin daiteke, baina krosaren egunean bertan izena emateko aukera ere egongo da. Ezer galtzekorik ez dagoenez, krosaren antolatzaileek eskualdeko haurrak lasterketan parte hartzera animatu dituzte. ☺

ZETA^s_l

MUNTAKETA ELEKTRIKOAK

Usabal z/g - 23. postakutxa
20400 TOLOSA
Tel.: 943 672 728
Faxa: 943 673 219



23

euskararen
semaforoa
euskararensemaforoa
.blogspot.com



Gozotegia


Okindegia

ECEIZA

P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

irakurri entzun Ikusi

Elurra Sutan
Juan Kruz Igerabide



Sinbolismoz eta moralitatez betetako eleberria da *Elurra Sutan*. Bertako pertsonaiak trantsizioa bizi zuen belar-naldi bateko kideak dira. Gizarte egoera gatazkatsutik ihes egiteko, bidaia espiritual bat abiatzen dute. Yoghnan aurkitzen dute ihesbidea. Ihesbide guztiak ordea, ez dira onak.

Little Hells
Marissa Nadler

East Coasteko bakarlari malenkoliatsu honek folk britaniar tradizionala eta dream popa nahasten ditu atmosfera propioa sortuz. Little Hells bere laugarren albuma da. Aurreko lanekin alderatuta, oraingo honi erritmo elektronikoak eta biluztasuna erantsi dizkio. Disko iluna da, intimista, non Marissaren ahotsa gailentzen den: "Infernuraino jarraituko zenuen ahotsa" audientziaren esanetan.

Donde viven los monstruos
Zuzendaria: Spike Jonze

Max mutikoa da fantasiaz betetako filme honen protagonista. Max oso bihurria da, eta haserraldi batean etxetik alde egiten du. Uharre antzeko batera iristen da, eta han fantasiazko animalia maitagarri batzuk topatzen ditu. Animalia hauek lider baten bila dabilta, eta Max, agindu dezakeen erreinu baten bila dabil. Aurkikuntza ezinhobea da beraz.

Urtarrilaren 8tik 22ra arteko hitzorduak

Erakusketak

Aranburu Jauregia

- Urtarrilaren 16ra arte: Mikel Azpillagaren pintura erakusketa.
- Urtarrilaren 10era arte: Natura 2000 erakusketa ibiltaria.

Ikuskizunak

TOPIC

- Urtarrilak 9 eta 10: Los duendes txotxongilo taldearen "La caperucita no, gracias" ikuskizuna. Hilak 9an, 17:00etan eta hilaren 10ean 12:00etan.

Leidor

- Urtarrilak 9: "Ttakun Ttan Ttakun" txalaparta, dantza eta antzerki ikuskizuna. Kukai, Ttanttaka eta Juan Mari Beltran elkarlanean. 20:30ean.



- Urtarrilak 15: "El club de las mujeres invisibles" antzezlanaren Vaiven produkzioen eskutik. 20:30ean.



Musika

Fronton kafetegia

- Urtarrilak 15: Amaia Zubiriaren kontzertua, doan. 23:00etan.



Txolarre Irratiaren 10. Urteu- reneko bertso jaialdia

Leidor

- Urtarrilak 23: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Jexux Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea: Amaia Agirre. Sarrerak aurrez salgai 6 eurotan. Egunean bertan, Leidorreko leihatilan. 18:00etan.

Tolosaldean [IKASTN]

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

Orain errazagoa da prestatzea. Prestakuntzarako eta horrekin lotutako zerbitzuetarako leihatila bakarra duzu.

<http://www.ikastn.com>

Eskaialdeko ikaskuntzarekin erlazionaturako informazio guztia ondorengo webgunean (langabetuentzako formakuntza, langileentzako formakuntza, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzako jarduerak...)

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Orduak
- Informatika hastapenak eta Internet	2010-01-18	30
- Word aurreratua	2010-01-18	20
- Elikagaien manipulatuzaile txartela	2010-01-18	6
- Etxeko kudeaketa eta mantenua	2010-02-01	9
- Sendabelarrak, aromaterapia eta elikagai terapia	2010-02-03	12
- Excel aurreratua	2010-02-03	20
- Word hastapenak	2010-02-22	20
- Joskintza tailerra	2010-02-23	42

Harremanetarako pertsona: Gemma Zelaia
Kokapena: TOLOSALDEA GMLH INSTITUTUA
Santa Luzia 17 -20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 edo 615.775.678
Posta-e: info@ikastn.com
Webgunea: www.ikastn.com



Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
**ZUEN
TZART**
*eskuz esku
arrunta berezi bihurtu!*

BERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

Bonbere- nearen 12. urteurrena

- Urtarrilak 8: Gari bakarleriaren kontzertua 22:30ean.



- Urtarrilak 15: Capsula taldea zuzenean 22.30ean.

- Urtarrilak 16: Ama Say taldearen kontzertua 22:30ean.



- Urtarrilak 22: Ange Duhaldearen emanaldia 22:30ean.

- Urtarrilak 23: Picore eta Vision Tunel zuzenean 22:30ean

Goardiako farmaziak

Ostirala, 8 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Asteazkena, 13 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa	Astelehena, 18 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa
Larunbata, 9 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	Osteguna, 14 Tolosa M ^a Isabel (Nagusia, 7) Tolosa	Astearte, 19 Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
Igandea, 10 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa	Ostirala, 15 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Asteazkena, 20 Olarreaga J. (Korreo kalea, 2) Tolosa
Astelehena, 11 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa	Larunbata, 16 Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Osteguna, 21 Azpiroz L. Amaroz 9 Tolosa
Astearte, 12 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Igandea, 17 Ugarte M ^a T. Euskal Herria, 46 Ibarra	Ostirala, 22 Santamaria I. (Nafarroa etorb.2) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketeta-Abaltzisketa-Albztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhliltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	Ertzantza	943 673 022
Ikaztegieta	Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

TINDATEGIA

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

**ARALAR
KIROLAK**

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Iana

- Adineko pertsonak edo gaixoak zainduko nituzke. Esperientziaduna eta profesionaltasuna. Karlos, 680 983 527
- Sagardotegi baterako sukaldaria behar da astelehenetik larunbatera lan egiteko. Telf. 660 654 317 (Jon)

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Izaskun auzoan. 60 m². 2 logela, sala, sukaldea eta komunarekin. 645 718 536

Salgai

- Legorretan pisu zoragarria salgai: 2 logela, egongela, komuna, sukaldea eta igogailua. 2001eko eraikuntza. Argitsua. 218.000 euro. Negoziagarria. 699.806.631
- Spaniel txakur kumea salgai 678 923 512
- Espace bat saltzen da egoera oso onean, 2001 urtekoa. 9.000 euro. Telf. 605 717 858
- Pottoka kalifikatuak salgai (kumeak egitekoak) Txakurkumeak salgai (pinsxer arrazakoak). 645 703 634
- Igini markako akordeoia saltzen da. Tamainaz ertaina eta beltza. Berau eramateko gurditxoia opari. Telefonoak: 943.65.13.45 - 663.621.800

Horoskopoa

Urtarrilaren 8tik 22ra bitarteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Bizitzak probaren bat jarriko dizu egun hauetan. Nahikoa dohain baduzu hori gaunditzeko, zure esku dago horietaz ondo baliatzea. Ongi babestu hotzetik.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Gizakia da harri berean bi aldiz estropozu egiten duen izaki bizidun bakarra. Zuk hirugarren aldiz erotzeko arriskua duzu inozentetia baitzara. Begiratu ondo non zapaltzen duzun.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Ulertzen diozula jakitea behar du. Adierazi iezaiozu bestela zuen arteko harremana hoztu egin daiteke. Kontuz etxean: ur-hoditegia, argi-indarra edo bestelako azpiegiturekin arazoak izan ditzakezu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Benetan saiatzen bazara lortuko duzu. Zortea ere zure alde izango duzu, batez ere lanaren arloan. Maitasuna txanponaren beste aldean dago. Prestatu zaitetz kalabazak jasotzeko.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Urte hasiera une egokia izaten da erretzeari utzi edo gimnasioan izena emateko. Zuretzat horrek ez du balio ordea: Lehenengo pausoa borondatea izatea da. Zuk ez duzu horretatik, ez egin beraz alferrikako saiakerarik.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Argia, udaletxeko zergak, ogia... Bizitza garestiagoa izango da hemendik aurrera eta igoera hori zure aurrekontuetan aurreikusi behar duzu. Gurasoak nazkatu dira zuri dirua uzten. Heldua zarela diozu gero?



libra

Irailak 23-Urriak 22
Sosega zaitetz eta lasai hartu gauzak. Horrela bakarrik egin ahal izango diozu aurre hilabete honetako lan esker-gari. Lagunak abandonatu xamar dituzu. Gero euren beharra duzunean, zer?



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Ondoziek sentituko zara eta mediku batetik bestera ibili beharko duzu. Pazientziak eta janari garbiak lagun zaitzake egoera horretatik ateratzen. Etxean ezustekoak izango dituzue.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21
Injustiziek zure onetik ateratzen zaituzte, baina batzuetan hobe da arazo horietatik aldentzea, horiek konpontzen saiatzea baino. Tartean sartuz gero galtzen atera zaitetzke.



capricornius

Martxoak 21-Apirilak 21
Maitasun kontuetan fin ibiliko zara. Bikotea baduzu aitorten gustagarri bat egingo dizu. Bikoterik ez baduzu berriz, badakizu zein izango den egingo dizuten aitortpena...



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Baten bat azpizjokotan ari zaizu, tentuz ibili beraz. Eguberriak pasa dira, baina espero ez duzun opari bat jasoko duzu. Lan arlotik etorriko da gainera. Agineko minak loa galaraziko dizu.



piscis

Martxoak 21-Apirilak 21
Utzi alde batera esamesak eta aurreiritziak. Zuk gustuko izatea da kontua, eta izugarri gustatzen zaizu. Lotsati xamarra da, eta zuk eman beharko duzu pausoa. Lasai, erraz jarriko dizu eta!





EGYZKITZA
SAGARDOTEGIA

Ostiral, larunbata, igande
eta jaiegunetan bazkariak

Usabal auzoa 25 - Tolosa
943 672 613



ISASTEGI
sagardotegia

urtarrilaren 16an
zabalduko ditugu ateak!

Aldaba-Txiki auzoa, 15-A
20400 Tolosa
943 652 964
www.isastegi.com



SARASOLA
SAGARDOTEGIA

sarasolasagardotegia@hotmail.com

943 690 283
mobila. 639 77 84 20

R.ZABALA
SAGARDOTEGIA

943 69 07 74
info@rzabala.com
Garagartza Baserria
20150 Aduna

ZALBIDE
SAGARDOTEGIA

Zalbide baserria. 20.269 Abaltzisketa
943 65 21 76

Benta Aldea
Sagardotegia

943 65 40 79

Industrialdea,
20270 anoeta



OÑATIBIA

e s t e t i k a

- Zure urte berriko asmoetan lagunduko dizugu.
- Gorputz modelaturako tratamntuen bono bereziak. Ultrasoinuak, infragorriak, drainatzea...

Gainera, hilabete osoan, gabon promozioak mantenduko ditugu.

Pablo Gorosabel, 7
Tel.: 943 536 971
20400 Tolosa



LARRE-GAIN

Bertako sagarrarekin
egindakoa



Larre-Gain baserria, Ereñozu Auzoa. 20.120 Hernani
Tel. 943 55 58 46 - Fax. 943 55 58 46